

PROBA ESPEZIFIKOA

2022ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete
Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du)

1. Egin ezazu iruzkin bat aforismo hauen esanahiari buruz:

- “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”
- “Gerra da gauza guztien aita”

Zer filosofoenak dira? Zer esan nahi dute?

2. Irakur ezazu arretaz zerrendatxoa, eta identifika ezazu zein baieztapen datozen bat sofisten filosofiarekin eta zein, berriz, Sokratesen filosofiarekin; egin ezazu iruzkin bat haien edukiari buruz, eta azter itzazu haien arteko aldeak:

- Ezagutu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena besterik ez da.
- Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu.

3. Adierazi ea zuzenak ala okerrak diren Aristotelesi buruzko baieztapen hauek:

- a) Ezagutzea gogoratzea da.
- b) Badira sortzetiko ideiak.
- c) Jaiotzean, gure burua hutsik dago. Zentzumenek ematen diguten informazioaren bidez eskuratzen dugu ezagutza.
- d) Konkretutik abstrakziora doan prozesua da ezagutza.

4. Erantzun San Agustinen pentsamenduari lotutako oinarrizko galdera hauei:

- a) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?
- b) Non bilatu behar da egia?

5. Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak laburtzea eta azaltzea, eta arrazionaltasun-eredu berri horren funtsezko alderdiak azaltzea.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

FILOSOFIAREN HISTORIA *HISTORIA DE LA FILOSOFÍA*

6. Azaldu ezazu alienazio hitzaren esanahia, eta aipa eta azaldu itzazu, eskematikoki, Marxek bereizten dituen alienazio motak.

7. Beheko enuntziatuek Nietzscheren filosofiaren etengabeko itzuleraren teoriari egiten diote erreferentzia. Esan ezazu egia ala gezurra diren:

- a) Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurkako kexa bat.
- b) Etengabeko itzuleraren teoriari esker, borondateak iragana nahi izatea gerta daiteke.
- c) Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da, funtsean.
- d) Etengabeko itzulerak "bai" esaten die biziari eta botere-nahia agertzen duen munduari.

8. Behekoak zientziaren eta etikaren ezaugarriei buruzko adierazpenak dira, Wittgensteinen arabera. Esan ezazu egia ala gezurra diren:

- a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu.
- b) Zientzia-judizioak balio-judizioak dira.
- c) Zientzia munduari dagokio.
- d) Etika subjektuari dagokio.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2022ko MAIATZA

FILOSOFIAREN

HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DE

LA FILOSOFÍA

**EBAZPEN ORIENTAGARRIA: FILOSOFIAREN HISTORIA
(2022ko maiatza)**

1.

Erantzuna:

Bi aforismoak Heraklitorenak dira, eta hau litzateke haien esanahia:

• “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean” esaldiak naturak etengabe jasaten duen aldaketa islatzen du; funtsean, tentsioa eta dinamismoa. Naturan dena ari da etengabe aldatzen, ibai bateko ur-lasterra bezala, non urak etengabe ari baitira berritzen. Ibaiko ur-lasterra Heraklitoren filosofiaren sinboloa da: “Panta rei: dena dabil, ezer ez dago geldirik”.

• “Gerra da gauza guztien aita”: Naturak jasaten duen etengabeko dinamismo hori etengabe lehian dabilen aurkarien arteko borrokak azaltzen du: Hotza – beroa, gaztetasuna – zahartasuna, eguna – gaua. Aurkarien arteko borroka edo gerra horrek sortzen du naturaren dinamismoa azalduko lukeen tentsioa. Aurkarien edo antitesien arteko borroka hori bere metodo dialektikoan jaso zuen Hegelek. Marxek, gero, klase-borroka historiaren motorra dela baieztatu zuen. Ikus daitekeen moduan, luzea da Heraklitoren itzala.

2.

Erantzuna:

• Ezagutu zeure burua. Sokrates: Sokratesen filosofiak barnealdara joateko egiten duen gonbidapen da. Dagoeneko, helburu nagusia ez da unibertsoa edo natura ezagutzea, baizik eta nork bere burua ezagutzea.

• Errealitatea ikusten dena besterik ez da. Sofistak: Sofistek “izatea” eta “zerbaiten irudia ematea” nahasten dituzte. “Hala da, hala iruditzen baldin bazaizue”. “Errealitatea ikusten dena besterik ez da”. Erlatibismoaren ondorio bat da. Adierazpen horren aurrez aurre daude Sokrates eta Platon, haientzat itxurek engainatu egiten baitute; beraz, gauzen esentziara iritsi beharra dago, gauzak “benetan diren” horretara, gauzak “diruditen” horri aurre egiteko. Platonen haitzuloaren mito ospetsuak tesi hori baieztatzen du, hain zuzen ere: itxuren itzalez haraindi, ideien benetako errealitatea dago.

• Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu. Sofistak: Gorgias sofistaren eszeptizismoaren printzipioetako bat da. Gizakiaren ulermenak egia ezagutzeko duen ezintasunari edo mugari egiten dio erreferentzia.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2022ko MAIATZA

FILOSOFIAREN

HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DE

LA FILOSOFÍA

3.

Erantzuna:

- a) Ezagutzea gogoratzea da. **Faltsua**. Tesi edo baieztapen hori Platoni dagokio.
- b) Badira sortzetiko ideiak. **Faltsua**. Baieztapen hori ere Platoni dagokio.
- c) Jaiotzean, gure burua hutsik dago. Zentzumenek ematen diguten informazioaren bidez eskuratzen dugu ezagutza. **Egia**. Aristotelesen ukatu egiten du sortzetiko ideien existentzia. Gure ezagutza paper zuri bat da, eta ez du ezer idatzia. Zentzumenek ematen dituzten datuen bidez idazten dira ideiak. Jarrera horrek berretsi egiten du, beste behin ere, Aristotelesen errealismoa, zeina nabarmen bereizten baita idealismo platonikotik.
- d) Konkretutik abstrakziora doan prozesua da ezagutza. **Egia**. Zentzumenen bidez objektu zehatza hautematen dut, baina ez da nahikoa. Aristotelesen, ezagutzaren teoriarik, azaltzen du nola eratzen diren ideia unibertsal eta abstraktuak gauza zehatz eta partikularretatik abiatuta. Aristotelesen ezagutza, beraz, konkretutik abiatzen da, eta abstrakziora eramaten gaitu.

4.

Erantzuna:

- a) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?: Akademikoekin izandako eztabaidan frogatzen du egia badela, haiek eszeptikoak baitziren eta ukatu egiten baitzuten egiaren existentzia, gizakia beti oker dagoela argudiatuta. Baina, S. Agustinek erantzun zuen bezala: "Huts egiten badut, banaiz". "Si fallor, sum". Huts egitearen egitatean berean aurkitzen du San Agustinek existentziaren beraren egia. "Si fallor, sum" esaldian, printzipio kartesiar ezagunaren aurrekaria ikusi nahi izan dute batzuek: "Cogito, ergo sum": "Pentsatzen dut; beraz, banaiz".
- b) Non bilatu behar da egia?: Egia barnean bilatu behar da: Ez da kanporantz joan behar, baizik eta norberaren barnerantz. Haren filosofia barnekotasunerako gonbita da: egia gizaki bakoitzaren barnean da. Gure barnekotasunean murgildu behar dugu, eta han, hain zuzen, aurkituko dugu egia; hau da, Jainkoa, zeina San Agustinek "nire intimitatearen alderdirik barnekoena" bezala definitzen baitu.

5.

Erantzuna:

XVIII. mendeko ilustrazioak optimismo handia eta giza arrazoimenaren botere eta gaitasunetan konfiantza handia izatea ditu ezaugarri: Argien mendea, iluminismoarena, argitasunarena edo Aufklärung"... Argiaren metafora ohikoa izan zen, adierazteko ezjakintasunaren ilunpeak atzean gelditu zirela eta, une hartatik aurrera, arrazoiak alde guztietan distira egingo zuela. Ilustrazioak arrazionaltasun-eredu berri bat ezarri zuen; hauek ziren haren ezaugarri nabarmenenak:

- Arrazoi enpirikoa: Ilustratuen arrazoiak partikularretik lege orokorretara doa. Ezagutza zientifikoaren jatorria esperientzia da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2022ko MAIATZA

FILOSOFIAREN

HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DE

LA FILOSOFÍA

- Arrazoi kritikoa: Ilustratuek arrazoimenaren autokritika egiten dute. Arrazoimenaren beraren gaitasuna zedarritzea interesatzen zaie, haren mugak ezartzea. Hain zuzen ere, esperientziak markatuko ditu muga horiek. Metafisikak, esperientziaren muga gainditzean, balioa galduko du.
- Arrazoi autonomoa: Era guztietako zaintzak, tradizioak eta agintariak baztertuta, ilustratuek geure kabuz pentsatzera gonbidatzen gaituzte, geure arrazoiak baliatzera: "Sápere aude": "Ausartu pentsatzera" izango da haren leloetako bat.
- Arrazoi sekularizatzailea: Arrazoimenaren eta fedearen arteko tentsioa eta oreka hausten ditu, fedea arrazionalera murriztuta. Erligioaren interpretazio arrazional baten aurrean gaude: "Erligioa arrazoi hutsaren mugen barruan" du izenburu, aski adierazgarria, Kanten obra batek.

6.

Erantzuna:

Latinezko alienus-etik (besterena, beste inorena dena) eratorritako termino juridiko bat da, salmentetan edo lagapenetan erabiltzen dena. Hala, ondasun bat alienatzea eta oparitzea edo saltzea baliokideak dira, hots, norberarena dena norbaiti transmititzea. Hedaduraz, esanahi psikopatologiko batekin ere erabiltzen da alienazioa, burutik egina edo zoraturata egotearen sinonimo gisa. Alienatua, beraz, buruko gaitza duena da, adimena zatitua duena.

Termino horren berezko zentzu filosofikoa «arroztasun» eta «urruntasun» hitzen esanahiari dagokio; subjektuak bere buruarekiko duen arroztasuna adierazten dute hitz horiek. Alienazio nozioaren zentzu filosofikoa Hegelek, Feuerbachek eta Marxek landu dute, batez ere.

Zenbait alienazio mota daude:

1. Alienazio erlijioso eta filosofikoa: Erligioa eta jainkoak gizakiak sortuak dira. Gizakiek sortu dute Jainkoa, beren behar eta larritasunen arabera, eta ez alderantziz. Gizateriaren ezaugarriak proiektatu dituzte Jainkoaren ideian. Prozesu horretan, azkenean, gizakiak, benetako sortzaileak, berak sortutako izakia gurtzen du: Jainkoa. Gizakiak mekanismo alienatzaile horretatik libratu behar du. Beste mundu hobe baten promesak lausotu egiten du gizarte eraldatzeko gogoia, eta onargarritzat ematen ditu mundu honetan onartezinak direnak. Hau ere esan zuen Marxek: "Erligioa herriaren opioa da". Feuerbachen iritziz, filosofia bera, funtsean, estalki filosofikopean ezkutaturako teologia bat besterik ez da.

2. Alienazio politikoa: Estatu burgesari egindako kritika. Estatu gizarte zibilak sortua da. Jabetza pribatuaren erregimenean, banako guztiak herritar gisa zuzenbidearen eta estatuaren eremuan itxuraz berdinduta ageri dira legearen aurrean; benetan, ordea, jabetza pribatuaren erregimenak banandu egiten ditu gizakiak, elkarren aurka jarri, eta errealizatzea galarazten die. Testuinguru horretan, estatua klase menderatzailearen zerbitzura dagoen arma bat da, klase menderatua arrastoan sartuta edukitzeko.

3. Alienazio ekonomikoa. Ekonomia politikoaren kritika: Gizarte kapitalistan, lanak ez du gizakia duin egiten, alderantziz baizik: desjabetu eta alienatu egiten du. Izan ere, sistema ekonomikoa liberalean, lana esplotatzeko baliabide bihurtzen da. Alienazio ekonomikoa gainbalioari lotzen zaio, hots, Marxen iritziz langile-klasea esplotatzeko oinarria den



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2022ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

mekanismoari. Gainbalio horrek salgai bihurtzen du edozer gauza, baita gizakiaren lana ere.

7.

Erantzuna:

a) Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurkako kexa bat.

Egia. Etengabeko itzuleraren teoria kultura grekotik hartua dago. Haren bitartez, Nietzschek protesta egiten du kristautasunak denborari buruz duen ikusmoldearen aurrean. Nietzschek arabera, lerro zuzenak gezurra dio; egia Zaratustraren eraztunean dago, zirkuluan, denboraren ikuspegi ziklikoan.

b) Etengabeko itzuleraren teoriari esker, borondateak iragana nahi izatea gerta daiteke.

Egia. Denbora lerro batean irudikatzeak mugatu egingo luke botere-nahia: borondateak ezin du berriz ere iragana desiratu, baina, guztia errepikatzen baldin bada, berriz desiratuko da iragana. Horrenbestez, botere-nahia eta etengabeko itzulera elkarri lotuta daude.

c) Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da, funtsean.

Faltsua. Baikorra da, berriz ere iragana desiratzeko aukera ematen baitigu. Gainera, Nietzsche hautapenezkoaren etengabeko itzuleraren alde azaltzen da: itzultzen dena ez da berbera, baizik eta bikainena, eta dekadentea dena desagertu egiten da.

d) Etengabeko itzulerak "bai" esaten die biziari eta botere-nahia agertzen duen munduari.

Egia. Bizitzaren eta existentziaren balioa adierazten du edozein doktrina ezkorren aurka; jolas kosmiko alai bat irudikatzen du, norbera onartzeko kantu bat, existentziaren bedeinkapena. Bizitzaren baieztapena da ukapen sokratiko-kristauaren aurrean.

8.

Erantzuna:

a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu.

Faltsua. Etikak ez du gertakariak deskribatzen, balioak preskribatzen ditu. Gertakariak, objektiboa dena, zientziari dagozkio, ez etikari.

b) Zientziaren judizioak balio-judizioak dira.

Faltsua. Zientziaren judizioak ez dira balio-judizioak; gertakari-judizioak dira. Eta haiei buruz, esan daiteke egia ala faltsuak diren. Adibidea: Beroak metalak dilatatzeko dituzte. Gertakari bat deskribatzen duen judizio bat da, eta baieztatu dezakegu egia dela. Nik honako hau badiot: "eutanasia ona da" balio-judizio bat ari naiz adierazten; beraz, subjektiboa da, hau da, subjektuari dagokio, bera baita balioaren egoitza. Noski, ezin da baieztatu egia ala gezurra den, zeren eta gerta baitaiteke beste batzuek aurkakoa sinestea: "eutanasia txarra da". Ondorioa: zientzia-judizioek gertakariak deskribatzen dituzte. Balio-judizioak beste esparru batzuetako osagaiak dira, hala nola etikaren,



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2022ko MAIATZA

FILOSOFIAREN

HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DE

LA FILOSOFÍA

estetikaren... hau da, mistikoaren esparrukoak, hitz egiterik ez dagoenaren esparrukoak. Eta *Tractasusek* dioen bezala... "hitz egiterik ez dagoenari buruz, hobe da isiltzea".

c) Zientzia munduari dagokio.

Egia. Proposizio enpiriko edo zientifikoak gertakarietara zuzentzen diren geziak bezalakoak dira. Wittgensteinek *Tractatus* lanean dioen moduan: "mundua gertakarien osotasuna da", eta proposizio zientifiko orok gertakari bat deskribatzen du. Erabateko paralelismoa dago haien artean: isomorfismoa. Gertaerak eta haiek deskribatzen dituzten proposizioek forma (morphé) bera (isos) dute.

d) Etika subjektuari dagokio.

Egia. Esan berri den moduan, etika balioaren egoitza da, eta balioa subjektuari dagokio. Esparru etikoa errealitate bat da, eta ez da argudio bidez defendatzen, jokabide-adibideak emanez baizik: "etika erakutsi egiten da, ez da frogatzen". Wittgenstein-ek bere "Etikari buruzko konferentzian" adierazi zuen bezala: Etika gizakiaren bizipen sakon bat da, inoiz irrigarri utzi behar ez duguna.

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	1,5
2	2,10
3	3,8
4	4,5
5	7,1
6	8,4
7	9,7
8	10,7